

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2013ko uztailaren 25a. IX. urtea. 2.634. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



«Dagokien balioa» eman nahi diete Belkoaingo aztarnei

Adunako Udalak Belkoain mendiko 1936ko gerraren aztarnen berreskuratzea bultzatu du; Aranzadi zientzia elkarte ari da lanean ◊6



'Udako azken festa' egitasmoaren aurkezpena. ITZEA URKIZU

Laugarren 'Udako azken festa' Plaza Berrian egingo dute

Abuztuaren 28tik 31ra bitarte izango da Tolosako merkatari eta ostalariek antolatzen duten jaia, boleibola protagonista dela ◊3

→ **Txupinazo jendetsua.** Billabona kirol elkarteak botatako suziariak eman die hasiera Villabonako Santio jaiei. Herriko plaza jendez gainezka izan da. Gaur, besteak beste, kirola izango da protagonista, herri krosarekin eta bertso-pilota emanaldiarekin. Dantzak ere bere tarteak izango du, herriko Oinkari taldeak saioa eskainiko baitu. ◊4

Lau gazte ekintzaileren komertzioak, atek zabaltzear

Tolosa Merkat egitasmo berritzaileari esker, bost urtez alokairua finantzatuko diete; Kale Nagusian daude irekiko diren komertzioak ◊3

Aimar Sagastibeltza Futbolaria

«Ezin naiz kexatu, etxetik gertuen dagoen Bigarren B mailako taldea da»

Irungo Real Union taldeak fitxatu du leitzarra; bertan partidak jokatzea da bere ilusia ◊7

Tolosaldeko ibilbideen berri ematen duen mapa argitaratu dute

Tolosaldea Garatzenek bultzatu du ekimena, eta egun homologatuta dauden 27 ibilbide jasotzen dira bertan; turismo bulegoetan eskuratu daiteke ◊2

Tolosaldeko natur ibilbideak jasotzen dituen mapa berria aurkeztu dute

Tolosako eta Larraitzeko turismo bulegoetan hartu daiteke mapa; hamar mila ale argitaratu dituzte

Imanol Garcia Landa


Tolosaldea Garatzeneko Turismo sailak eskualdeko mendi ibilbideak biltzen dituen mapa berria aurkeztu du. Guztira 27 ibilbide daude seinalatuta bertan, zehazki SLak eta PRak, eta Larraitzetik Abaltzisketara doan bide irisgarria. Tolosaldeko ibilbideen proiektua martxan jarri zenean baino kopuru txikiagoa da. Izan ere, Gipuzkoako Mendi Federazioak egindako gainbegiraketaren ondorioz, ibilbide horietako batzuk deshomologatu ditu, ez daudelako behar bezala mantenduta.

Eskualdeko ibilbideekin batera, beste zenbait informazio ere eskuragarri du euskarri berriak. Hala, Aralar Parke Naturaleko mendi ibilbide sarea dago, baita Done Jakueren bi bideak, bidegorriak, Plazaolako Bide Berdea, eta Natura 2000 sareko eremuak. Maparen hamar mila ale argitaratu dituzte, eta doan eskuratu daitezke Tolosaldea Tourren Tolosaldeko bulegoan eta Larraitzeko Txindokiko Itzalaren turismo informazio gunean. Bestalde, Tolosaldeko poster bat eta postal bat argitaratu dituzte eta salgai daude puntu horietan. Tolosaldeko Garatzenetik azaldu dutenez, maparekin natura turismoari bultzada berri bat ematea espero dute.

Joxe Luis Urdangarin Tolosaldeko



Olatz Illarregi eta Joxe Luis Urdangarin, mapa berriaren aurkezpenaren irudia. IGL.



Natur ibilbideen mapa berriaren zati bat. IGL.

dea Garatzen garapen agentziako kudeatzaileak azaldu duenez, «Guretzako baliabide interesgarria da, berria ez izan arren. Tolosaldean turismoaz ari garenean,

askotan egin dugu apustu turismo aktiboaren inguruan, naturarekin lotura duenak». Urdangarinek gaineratu duenez, «eskualdean hainbatek ezagutzen dituen

baliabide horiek ahal den eskuragarria jarri nahi dugu bisitatzera etortzen direnentzab».

14 urteko bidea

Ibilbideak biltzearen proiektuaren lehen urratsak 1999an Tolosaldea Garatzenek eta Tolomendik eman zituzten. Eskualdeko udal guztiekin bilerak egin zituzten mendi ibilaldietarako zaletasuna zuen jendearekin eta mendi elkarrekin, homologatzeko moduak ziren ibilbideen zerrenda bat egiteko helburuarekin. 17 ibilbideetan seinaleak ipini zituzten. Gero etorri ziren Erniozaleak elkarrekin Ernio mendiaren inguruan diseinatutako bideak. Hirugarren fasean, Tolosaldeko Garatzeneko turismo sailak zortzi ibilbide bultzatu zituen. Sarean azkenak txertatu zirenak Baliarraingo ibilbidea eta Zizurkilena diseinatutakoak. Ibilbideen fitxa bana egin zen eta liburuxka ere argitaratu zuen Tolosaldeko Garatzenek.

Ibilbide guzti horietatik, esan bezala, egun 26 homologatu ditu Gipuzkoako Mendi federazioak, eta horiek daude deskribatuta mapan. Olatz Illarregi Turismo saileko arduradunak azaldu duenez, «turismo azoketara joaten

↓ Udako eskaintza

ESPERIENTZIA GASTRONOMIKOAK

- **Gorrotxategi, tradizio goxoa.** Uztailak 27, abuztuak 31 eta irailak 28.
- **Tolosa Gourmet, zu zu chef onena.** Abuztuak 3 eta irailak 7.

BISITA GIDATUAK

Igandetik ostiralera

- **11:30.** Gorrotxategi Museora bisita gidatua.
- **12:30.** Tolosaldeko Alde Zaharra.
- **17:00.** Gorrotxategi Museora bisita gidatua.
- **18:00.** Tolosaldeko Alde Zaharra.

Larunbatetan

- **11:00.** Gorrotxategi Museora bisita gidatua.
- **12:00.** Tolosaldeko Alde Zaharra.
- **16:00.** Gorrotxategi Museora bisita gidatua.
- **17:00.** Tolosaldeko Alde Zaharra.

garenean mendi ibilbideena da beti eskatzen den materiala. Bere garaian egin genuen apustua gps bidez deskargatzeko, Wikiloc-en zintzilikatuta ditugu eta baita ere webgunean, baina hala ere jendeak mendira joaten denean eskuan behar du. Horregatik erabaki genuen mapa ateratzea».

Turismo eskaintza

Lehenengo urtean martxan jarritako esperientzia gastronomikoen tailerrak ere abian daude aurtengo udan. *Gorrotxategi, tradizio goxoa* eta Sukaltalkako tailerrak eskainiko dira. Abuztura begira indartu egin dituzte bisita gidatuen zerbitzuak, egunero egin ahal izango baitira. Hala, lau bisita gidatu egin ahal dira egunero, horietatik bi Gorrotxategi Museora eta beste biak Tolosaldeko Alde Zaharrean zehar.

Turisten bisitei dagokionez, Illarregik gogora ekarri du lehenengo sei hilabeteko datuak «nahiko onak» izan direla: «Tolosako bulegoan berdintsu mantendu da bisita kopurua eta Larraitzeko informazio puntuan zertxobait igo da. Harrigarria da egin zuen eguraldi kaxkarrarekin, baina jende dezente joan zen Larraitzera».

↓ Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

Txakurra. Arratoi-txakur arrazako txakur gorri-marroixka galdu zen duela bi aste, Hernialdeko Olaza bailara inguruan. Zerbait jakin dezakeen edonork, deitu dezala 943 653525 telefono zenbakira.

ESKARIA

Erremolkea. Autoarentzako bigarren eskuko erremolkea erosi nuke. Neurriak, 1,5 metro eta 1,10 metro artean. Deitu 649 510941 telefono zenbakira.

LAN ESKAINTZA

Etxeko lanetarako. Emakume euskalduna behar da, haurra

goizez eskolara eraman eta astean lau orduz etxeko lanak egiteko. Interesatuak, deitu 622 163774 telefono zenbakira.

Estetizista. Esperientziadun estetizista behar da. Interesatuak, deitu 943 674107 telefono zenbakira.

Zerbitzaria. Tolosaldeko taberna baterako neska euskaldun eta eskarmentuduna behar da zerbitzari lanak egiteko. Interesatuak, deitu 686 954069 telefono zenbakira.

SALGAI

Sagastia. Ezkio-Itsason, 1.000 sagarrondo inguru dauzkan eta

oso egoera onean dagoen sagastia salgai. Prezio oso interesgarria. Interesatuak, 660 352 745 telefono zenbakira deitu behar du.

LAN BILA

Etxeko lanak. 08:00etatik 14:00etara, etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperientziadun emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea dauka. Deitu 943 69 68 82 edo 606 521 992 telefono zenbakietara.

Hauxe Garbitasunak. Garbiketa orokorrak: etxeak, bulegoak, aurrekontua eskatzeko, deitu konpromisorik gabe 681 152 494 telefono zenbakira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Lau komertzio ekintzailek biziberrituko dute Kale Nagusia

Tolosa Merkat egitasmo berritzaileari esker, bost urtez alokairua finantzatzeko diete ekintzaileei

ITZEA URKIZU

Tolosa Merkat 2011. urtean komertzioa eraberritu eta herriko ekonomia dinamikoago bilakatzeko abiarazitako egitasmoa da; horretarako, Alde Zaharrean urteetan barrena hutsik egon diren lokalak eraberritu dituzte. Orain bi urte erendako lanaren haziak jasotzeko da Tolosa, Kale Nagusia biziberrituko duten lau gazte ekintzaileen komertzioak beren ateak zabaltzeko baitira.

Ekintzaileek jaso dituzte jada, lokaletako giltzak, eta agerraldian, Ibai Iriarte alkatea, Juanjo Ruiz Tolosa & Co elkartearen lehendakaria eta Jon Andoni Zarate Eusko jaurlaritzako komertzio zuzendaria izan dira. Ibai Iriartek, besteak beste, herri bizi bat izateko komertzio bizia izateko duen garrantzia azpimarratu nahi izan du.

Bere aldetik, Jon Andoni Zaratek zorionak eman dizkie udalari nahiz merkatarari eta ostalari elkarteari, komertzioaren esparruan «aitzindariak» direla esanez: «Herri guztietan dago lokal hutsen arazoa, baina oztopo hau arrakastaz gainditzea aurrerapauso handia da». Eusko Jaurlaritzako komertzio zuzendariak bertako komertzioaren aldeko

hautua ere azpimarratu du: «Gero eta gehiago dira gure herrietara iristen diren frankizia eta markak, eta hauen aurrean balio erantsia dute lau gazte ekintzaile hauek».

Tolosa Merkat proiektuaren helburuak, lau izan dira hasieratik. Batetik, Tolosa hirigune komertzial moduan, erakargarria eta lehiakorra izatea da jomugatako bat, eta era berean, kontsumitzaileen beharrezkoak asetzeari. Azken honek Tolosako bezeroen fideltasuna areagotuko luke, eta aipaturiko hiru helburu hauetara iristeko, Tolosa Merkat programak ekintzailetasuna sustatu nahi izan du.

Idea berriak komertzioetara

Lau negozio hauek ireki aurretik lan handia egin behar izan dute. Izan ere, Tolosako lokal komertzialen errola osatzea izan zen, Tolosa & Co elkartearen eta Tolosako Udalaren eginbeharra. Jardun honetan ari zirela, herriko eremu batzuetan itxitako lokal asko zeudela ikusi zuten; merkataritzak ez zuen, jada, bizitzarik, eta inguruko komertzioei ere kalte egiten zien honek.

Kale Nagusia zen, 2010. urtean, lokal hutsak zituen kaleetako bat; 38 lokaletatik, 19 zeuden hutsik, zehazki. Honen aurrean, beraz, merkataritza dentsitate baxuko eremuetan lokalak egokitu eta komertzioa biziberritzea ezinbestekotzat jo zuten.

Bi lehiaketa publiko egin dituzte honetarako. Lehena proiekturako lokalak aukeratzeko izan



Datozen hilabeteetan zabalduko dituzte beren komertzioak, lau gazte ekintzaileek. ITZEA URKIZU

zen; 11 eskaintza jaso zituen udalak, eta horietatik, kale berean zeuden 4 lokal aukeratu zituzten. Behin aukeraketa eginga, lokalak jabeekin adostasunetara iritsi ziren, alokairuen zenbatekoak zehazteko.

Bide beretik, jende ekintzailea Tolosa Merkat proiektura erakartzeko ere lehiaketa publiko bat egin zuten, kanpaina berezi baten bidez, eta 10 proposamen jaso zituzten kasu honetan. Oinarri teknikoak nahiz bestelako ezaugarriak kontuan hartu eta gero, jada amaitzeko dauden lau ideiak aukeratu zituzten.

Prozesu honen ondoren, Kale Nagusia biziberrituko duten lau komertzioak hainbat arlotakoak izango dira, eta eskaintza bereziak izango dituzte, berritzaile izaerarekin. Horrela, okindegi ekologikoa eta tailerrak zabalduko dituzte Amaia Tobesek eta Raul Camposek, 31 urtez itxita izan den lokal batean. Lidia Hernandezek, berriz, 26. zenbakiko lokalean zabalduko du tailerrak, arropa eta osagarriak eskainiko

dituen komertzioa; lokal hau ere 30 urtez itxita egon da.

Arteak ere izango du tarterik Kale Nagusian, eta Garikoitz Muriak izango du horren ardura, zabalduko duen arte galeriaren bitartez; Tolosan bertan egindako arropa eta osagaiak ere eskuraga-

400.000 euro inguruko aurrekontua behar izan dute lokalak eraberritzeko

rri izango dira, 30 urtez zabaldu gabe egon den lokal honetan. Azkenik, laugarren komertzio berritzailea Naroa Gaztañagak zabalduko du, 16 urtez itxita egon den lokalean; haurrentzako arropa izango da bere berezitasuna, eta osagarri nahiz tailerrak ere eskainiko ditu.

Erakundeen arteko elkartana

Merkataritza sustatzeko egitasmo berritzaile hau aurrera eramateko, guztira, 403.438,97 euroko aurrekontua behar izan da.

Lokalen jabeek eta ekintzaileek inbertsio osoaren %40a jarri dute, eta %60a, berriz, Tolosako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak jarri dute; bi erakunde hauen arduraren bitartez, Tolosako egokitzeko obra finantzatzea, eta alokairuen ordainketetan ere parte hartuko dute. Modu honetara, datozen bost urteotan metro karratuko 4 euroko alokairua ordaindu beharko dute ekintzaileek.

Tolosa Merkat egitasmoaren lehen pausoak eman dituzten arren, Tolosa & Co elkarteak Juanjo Ruizek proiektuari jarraipena emango dion garrantzia azpimarratu du, eta irailean egitasmoari jarraipena emango dion lantaldea aurkeztuko dutela azaldu du: «Tolosa Euskal Herriko merkataritza dentsitate handienetakoa duen herria da, eta kanpora begira jarritz, Espainiako herriekin alderatuta ere komertzio tasa handiak ditugu, 1500 lagun bizi baikara komertzio eta ostalaritza berritzaile hiru urteko garrantzia dute horrelako egitasmoek».

Boleibolak biribilduko du Tolosako uda, laugarrenez

Merkatarari eta ostalariek antolatutako 'Udako azken festa' Plaza Berrian izango da, abuztuaren 28tik 31ra bitarte

I. Urkizu

2010. urtean antolatutako zuten lehenengo, Tolosako ostalari eta merkatariek, *Udako azken festa*. Izen horren azpian, herritarren arteko boleibol partidak antolatutako izan dituzte azken hiru urteotan, Euskal Herria plazan nahiz Plaza

Berrian, eta aurten ere taldekako kirol honek biribilduko du udako oporraldia Tolosan; abuztuaren 28tik 31ra bitarte, Plaza Berrian izango dira partidak.

Betik moduan, neska nahiz mutilen osaturiko taldeak osatu beharko dira hondar gaineko boleibol txapelketan parte hartzeko, eta Tolosa & Co elkarteak kide diren tabernetan eman beharko da izena, abuztuaren 11 baino lehen. Aipatzekoa da, iaz 16 taldek eman zutela izena, eta antolatzaileek herritarren animatu nahi izan dituzte aurtengo saiorako ere.

Behin taldeak osatuta, abuztuaren 28, 29 eta 30ean ligaxkako taldeen arteko partidak jokatuko dituzte hondar gaineko boleibolaren, 16:00etatik aurrera. Abuztuaren 31n, berriz, 16:00etatik aurrera, txapelketako azken txanpaz gozatzeko aukera izango da Plaza Berrian; final laurdenak eta finalerdia izango dira lehenik, eta 20:00ak aldera finala jokatu dute.

Aurkezpenean, araudiaren zertzelada nagusiak gogora ekarri dituzte antolatzaileek: hiru set jokatu dituzte partidak bakoitzean, eta talde onenak aurrera egin-

go du. Lehen bi setak 15 tantora jokatu dituzte, eta azkena, berriz, 12ra.

Udako azken festa izenburupean hondar gaineko boleibol txapelketa irabazten duen taldeak, Ikatz tabernan afitari bat jasoko du sari gisa, eta bigarren sailkatuek, berriz, Iratxon afitari ahal izango dute. Azkenik, hirugarren taldeak Eguzki tabernako otordua jasoko du sari moduan.

Boleibol partidak ikustera joaten diren herritarrentzat, berriz, ostalariek barra jarriko dute Plaza Berrian, eta Keler garagardoa eskuragarri izango da bertan; ka-

txiek 5 euroko prezioa izango dute, gainera.

Antolatzaileek nabarmendu dutenez, «urtez urte berrikuntza eraberrituko dute, eta aurretik ez zuten izango da nobedaderik».

Hasteko, Tolosa & Co merkatarari eta ostalari elkartearen Facebook orrialdean txapelketako araua, partidek egutegia nahiz emaitzak argitaratuko dituzte. Honekin batera, hondar gaineko boleibol txapelketako argazkiak nahiz eduki multimedia www.agerremedia.com web atarian ikusi ahal izango dira.

Billabona kirol elkarteko futbolariak jaurtitako txupinazoarekin eman zaie hasiera Amasa-Villabonako Santio jaiari. Kirol, dantza, musika eta alor ezberdinetako ekimenez jositako zazpi egun dituzte aurretik herritarrek.

Kolore urdin eta berdeko santioak

Mikel Iraola Amasa-Villabona

Lehertu da festa Villabonan. Hasi dira aurtengo Santio jaiak. Billabona kirol elkarteko gaztetxoek jaurtitako txupinazoarekin eman zaie hasiera festei, eta ekin tzez jositako beste zazpi egun geratzen dira aurretik.

Taldearen kolore urdin eta berdeak izan ziren nagusi atzokoan. Futbol eskolako ehundik gora umek kalejira erraldoi bat egin zuten, klubeko banderak astinduz.

Bien bitartean, plaza jendez betetzen hasia zen, jaiak noiz hasiko irrikitan. Arratsaldeko seiretan, txupinazoaren ez tandarekin batera lehertu zen festa. Billabona Kirol elkarteak 150 globo eta baliok banatu zituen, eta Iraunkorrek txarangak alaitu zuen jaigiro koloretsua.

Iluntzean, jende andana bildu zen futbito txapelketako finala bertatik jarraitzeko. Rainbow eta Hausbi taldeak izan ziren nor baino nor, eta partida ikustera gerturaturatukoek giro bikaina ezarri zuten plazan. Partidaren ondoren, herri afaria egin zuten, eta gauean danbor hotsek hartu zituzten Villabonako kaleak.

Gaur, kirola eta dantza

Gaur Santio eguna ospatuko dute amasa-billabonatarrek. Kirol eta dantza emanaldiez jositako eguna izango da, izan ere goizetik hasita, hainbat kirol ekintza izango dira, eta arratsaldean zein gauean dantza emanaldiak eskainiko ditu Oinkari Dantza Taldeak.

Zunbeltz elkarteak 33. aldiz antolatu duen Herri Krosak ehunka korrikalari bilduko ditu goizeko 10:30etatik aurrera. Benjaminak izango dira irteten lehenak, eta elkartearen inguruan buelta txiki bat eman beharko dute. Bi itzuli egingo dizkiote alebinek. Infantil eta kadeteek, 2,5 kilometroko ibilbide nagusiari buelta bat emango diote. Juniorrek, bi bira egin be-



Plaza jendez eta kolore biziz bete zen jaiari hasiera emateko. M. IRAOLA

harko dituzte, eta proba nagusian parte hartzen dutenek, berriz, hiru, guztira 7,5 kilometroko bideak eginez.

Gaztetxoek kirolaz gozatzen jarraitzeko aukera izango dute arratsaldean, izan ere, Bearzana pilotalekuan kirolgune bat ezarriko dute. Ping-ponga, baseball-a eta zapatila jaurtiketa txapelketak jokatuko dituzte. 20:00etan, berriz, leku berean, bertso pilota emanaldia izango da Jexux Mari Irazu eta Beñat Iguaran bertsoariekin; eta Iñaki Lizaso, Antton Aranburu, Iker Urmeneta eta Julen Urruzola pilotariekin.

Dantzak ere izango du bere tartea. Arratsaldeko seietan, soka dantza egingo da Malkar plazan. Eta 22:00etan, Olaederra kiroldegian Oinkari Dantza Eskolako txikiak emanaldi berri bat estreinatuko dute, Poxpolo eta Konpainia pailazoekin elkarlanean egin dena. Guztira 250 haur inguruk hartuko dute parte.



Billabona kirol elkarteko kideek kalejira egin zuten. M. IRAOLA



Iraunkorrek txarangak alaitu zuen giroa. M. IRAOLA

↓ Biharko egitaraua

UZTAILAK 25, OSTEGUNA SANTIO EGUNA

- **09:00.** Diana, Izorra hadi dultzainero taldearen eskutik.
- **10:30.** XXXIII. Herri krosa haurrentzat, Altzin plazatik eta Zunbeltz elkartearen eskutik.
- **11:00.** XXXIII. Herri krosa helduentzat, Altzin plazatik eta Zunbeltz elkartearen eskutik.
- **12:15.** Ikurrinaren igoera Errebotokeko plazan.
- **12:30.** Loatzo Musika Eskolako Bandaren emanaldia Errebotokeko plazan.
- **17:00.** Kirolgunea, 11-17 urte bitarteko gaztetxoentzat, Bearzana frontoian. Ping-pong, Baseball eta Zapatila jaurtiketa izango dira.
- **18:00.** Soka dantza Malkar plazan, Oinkari dantza taldearen eskutik.
- **19:00.** Sokamuturra, Errebotokeko plazan, Izorra hadi dultzainero taldeak alaituta.
- **20:00.** Bertso pilota, Bearzana pilotalekuan. Bertsolariak: Jexux Mari Irazu eta Beñat Iguaran; pilotariak: Iñaki Lizaso-Antton Aranburu eta Iker Urmene-ta-Julen Urruzola. Aurkezle lanetan, Ekain Ormazabal ariko da.
- **22:00.** Oinkari Dantza Taldea eta Poxpolo ta Konpainiaren eskutik dantza emanaldia Olaederra kiroldegian.
- **00:00.** Dantzaldia Errebotokeko plazan Trikizioren eskutik.

Euskal Herria, 22
• IBARRA •
943 67 02 44

Altzon, jaiak medio, hurrengo ostiralean egingo dute azken ostiraleko elkarretaratzea

Herrira-k antolatuta bi eskualdeetako herri gehienetan mobilizazioak egingo dituzte, bihar

Asier Imaz

Tolosaldeko eta Leitzaldeko herri gehienetan elkarretaratzeak antolatu dituzte bihar, hileko azken ostiralean. Altzon astebete atzeratu dute mobilizazioa, herriko jaiak gainean baitituzte.

Herrira mugimenduak hilabete honetan egingo duen irakurketan, sakabanaketaz izango du hizpide: «Uda edo negua izan, udako

↓ Azken ostirala

UZTAILAK 26, BIHAR

Aduna. 20:00etan.

Alegia. 19:30ean.

Altzo. Herriko jaiak direla medio, abuztuaren 2an, hurrengo ostiralean, egingo dute elkarretaratzea Altzon, 20:00etan.

Amezketeta. 19:30ean.

Anoeta. 19:30ean.

Asteasu. 19:00etan.

Berrobi. 19:30ean.

oporretan edo Gabonetan, sakabanaketak ez du atsedenik hartzen».

Horren aurrean, Espainia eta

Berastegi. 19:30ean, plazan.

Bidania-Goiatz. 19:00etan.

Ibarra. 19:30ean.

Irura. 19:30ean, plazan.

Gaztelu. 19:30ean, plazan.

Ikaztegieta. 20:30ean.

Leitza. 20:00etan, Lopenen.

Txarama. 20:15ean.

Lizartza. 20:00etan.

Tolosa. 20:00etan.

Villabona. 20:00etan.

Zizurkil. 20:00etan.

Frantziako espetxeetan dauden euskal herritarrei euren babes guztia azaldu nahi izan die Herriarik, beste behin ere.

Euskal Herriko Soka Tira Txapelketa Alegian jokatu da

Lur gaineko txapelketaren finala uztailaren 31n jokatu da, 11:30ean, Alegiako Frankoni zelaian

A. Imaz Alegia

Euskal Herriko Soka Tira Txapelketaren finala jokatu da uztailaren 31n, asteazkenean, Alegian. Goma gainekoak bukatu ostean, lur gaineko lehiak hasi ziren, eta Alegian jokatu den finala, modalitate honetakoa izango da. Olazubi Eraldaketa S.L. enpresa aritu da finala antolatzeko lanetan, Alegiako Udalaren babesare-

kin. Tiraldiak 11:30ean hasiko dira, Frankoni zelaian.

Txapelketaren finalean sei talde ariko dira lehiatzen: Mutriku, Gohierri A, Gohierri B, Gaztedi A, Gaztedi B eta Gaztedi C. Goma gaineko lehiak ikusgarriak eta parekatuak baldin badira, zer esan lur gaineko tiraldiez. Finalean dauden sei taldeek lehia ikusgarria eskainiko dute Alegian hurrengo asteazkenean, eta antolatuzaileek, herri kirol zale guztiak gonbidatu dituzte Frankoni zelaian. Edozein ikuskizun multimedial baina xarma handiagoa du soka tira bertatik bertara ikustek, eta hori horrela den edo ez jakiteko, hilaren 31n Alegiara gerturatzeari nahikoa izango da.

Irudia • Ikaztegieta



HILERRIAN 24 HORMA-HILOBI GEHIAGO

Ikaztegieta hilerria txiki gelditu da, eta ondorioz, udalak egokitze lanak hasi ditu. Egun, horma-hilobi bakarria gelditzen da, eta etorkizunean arazorik ez izateko, 24 gehiago egiteko asmoa du

Ikaztegieta Udalak. Hilerria eraberritzeko lanak iragan astean hasi ziren, eta Iker Otamendi alkatetik azaldu duenez, lanak amaitzeko beste bi aste beharko dira. HITZA

Buruntzuntzin aterpetzeko bazkaria

Izena emateko zerrendak Amezketako tabernetan jarri dituzte, eta abuztuaren 6a baino lehen apuntatu behar da

A. Imaz Amezketeta

Abuztuaren 11n, igandea, Igaratza Eguna ospatuko dute Aralar-ko Igaratzako ermita eta txaboletan. Egun hau dela eta, urtero bezala, Amezketako Buruntzuntzin Mendi Elkartek Buruntzuntzin aterpetxean bazkari bat antolatu du.

Elkartetik azaldu dutenez, bazkari joan nahi duenak aurrez izena eman behar du, eta horretarako, Amezketako tabernetan zerrendak jarri dituzte. Izena emateko eguna abuztuaren 6a dela azaldu dute Buruntzuntzingo ki-deek.

Bazkariaren prezioa eguneari bertan erabakiko da, eta hitzordua 14:30ean jarri dute. Orduan eseriko dira aterpetzeko mahaiaren inguruan bazkaldarrak.

Bazkaldu ondoren, mahai ingurua egongo da, giro alai gainera, baina elkartetik esan dutenez, oraindik zehaztu gabe dago gonbidatua.



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 Ostatu Hernialde Jatetxea

Bi lagunentzako bazkaria edo afaria

Hernialde
Tel.: 943-65 24 96



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

2 Mahala Bi sorta



<http://www.mahalanaturala.com>

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 Eureka zientzia museoa Bi lagunentzako bina sarrera



Mikeletegi pasealekua, 43-45
Tel: 943 01 24 78 • www.eurekamuseoa.es

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

Parte hartzeko deitu: **902-82 02 40** edo sartu tolosaldea.hitza.info helbidean ZOKZETAK atalean.
Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

harpidedun
TXOKOA hitza

Aimar Sagastibeltza ◊ Real Union taldeko jokalaria

Azterriko taldeetan hainbat urtez jokatu ostean, Eibarrekin jokatu du azken denboraldian, eta taldea mailaz igotzen ikusi du; bertan berrituz ezin, eta denboraldi berria Irungo Real Unionen egingo du.

«Real Unionen nire ilusioa partidak jokatzea izango da»

I. Terradillos Leizta

Azken denboraldian Eibarren aritu ostean, Real Union irundarrean ariko da datorren denboraldian jokalaria leiztarra. «Pozik» dago, «ilusioz beteta», minutu ugari jokatzeke esperoan.

Hasi al zara talde berriarekin lanean?

Pasa den asteko ostegunean hasi nintzen talde berriarekin entrenatzen, eta ilusioz beterik nago. Maila hauetan jokalaria ia guztiak ezagutzen dugu elkar, beraz, ia guztiak ezagutzen nituen. Gainera, talde euskaldunarekin egin dut topo. Hori bai, oraindik jokalaria gehiago falta dira taldea osatzeko.

Aldaketak eta zailtasunak izan dituen taldea da Real Union.

Entrenatzailea aldatu du, egoera ekonomiko zaila txukuntzea lortu du, aurrekontua murriztu du, bertako jokalariekin osatu du taldea... Horiek lirerateke gakoetako batzuk. Bada, talde xumeagoa izango da, beraz, umiltasunez joan beharko dugu.

Zein helburu duzu denboraldi berri-rako?

Nire ilusioa partidak jokatzea da, eta horrez gain, ahal dudan egokien egingo dut lan.

Eta taldearena?

Oraindik garaiz da jakiteko, batek, taldea oraindik osatu gabe dagoelako, eta bestetik gure aurkariak zein izango diren oraindik ez dakigulako. Partidaz partida ikusiko da non egon gaitezkeen.

Eibarrek denboraldi bikaina sinatu du; mailaz igotzea lortu du, eta Errege Kopan ere parte hartze bikaina izan zuen.

Eibarrentzat azken urteetako



IT.

denboraldirik onena izan da. Pertsonalki, berriz, ez da oso urte ona izan niretzat partida gutxi jokatzeke aukera izan baitut.

Pena sentitzen duzu mailaz igo ez zarelako?

Azken urteetan asko jokatu izan dut beti, eta Eibarren ez dut nire ustez espero eta merezi nuen bezain beste jokatu. Ulertu behar da, hala ere, taldea oso ongi zegoela, eta hor jokatzea sartzea oso zaila zela. Nire aldetik, esan dezaket nire eguneroko maila ona izan dela. Kopako partidak jokatu ahal izan ditut, eta goi mailako taldeen kontra aritzeko aukera izan dut. Hori esperientzia ikaragarria izan da. Eibarren iaz zeu-

den jokalarien erdiak baino gehiagok ez dute jarraituko. Bigarren A mailan ez jokatzeke arantzaz geratzen dela egia da, baina, duela lau denboraldi Nastic taldearekin nengoela maila horretan lehiatzeko aukera ere izan nuen, beraz, arantza ez da hainbestekoa nire kasuan.

Eibarren jokatzeke etxera itzuli zinen, eta orain ere etxean segiko duzu. Gustura, ezta?

Pozik nago, etxean egotea plus bat baita. Hori bai, dagoeneko 29 urte ditut, beraz, irekia nengoen kanpora jokatzea joateko ere. Etxetik gertuen dagoen Bigarren B mailako taldea egokitut zait, eta ezin naiz kexatu.

Abraham Olano harrituta agertu da doping salaketekin

Anoetar txirrindulariak Frantziako Tourrean EPOa hartu zuela adierazi du komunikabide batek

Asier Imaz Anoeta

Frantziako *Le Monde* egunkariak Abraham Olanok 1998ko Frantziako Tourrean EPOa hartu zuela ondorioztatu du. Frantziako senatuko batzorde bat doping-aren inguruko ikerketa egiten aritu da, eta txostena atzo argitaratu zuten. *Le Monde* egunkariaren esanetan, txosten horretatik Abraham Olanok EPOa hartu zuela ondorioztatu daiteke. Frantziako komunikabidearen esanetan, 1998an egin ziren probetatik %75ak ez zuten doping-aren aurkako froga pasatu, hau da, 60 probetatik 40 inguruk positibo eman zuten. Horien artean, Tourraren amaieran podiumera igo ziren hiru txirrindulariak daude: Marco Pantani, Jan Ullrich eta Bobby

Julich. Anoetako txirrindulari ohia harrituta agertu da zerrenda horretan bere izena agertu delako. Espainiako EFE agentziak plazaratu duenez, salaketa hori frogatu egin beharko dutela esan du Olanok: «Zerrenda horretan nire izena azaltzean lehenengo harritua ni naiz, positibo ez baitut eman. Ez dut ulertzen orain hau nola irten daitekeen. Frogatu egin beharko dute». Abraham Olanok errudun ez dela sentitzen esan du, beti ere, Espainiako EFE agentziaren arabera: «Legez kanpoko ezer egiten ari nintzen sentaziorik ez nuen izan inongo momentuan. Beti taldearen eta zerbitzu medikuen kontrolpean egon nintzen ni».

1998. urtean Abraham Olanok Banestoren elastikoarekin korritu zuen Frantziako Tourra, Jose Miguel Echavarri eta Eusebio Unzuerekin aginduetara. Eroriko baten ondorioz, Tourra utzi beharrean izan zen anoetarra. Ondoren, Espainiako Itzulia eta erlojupeko munduko txapelketa irabazi zituen.

Irristaka taldea bikain, erresistentzia proban

Roller Tour 24 orduak patinajeko proban emaitza bikainak lortu dituzte Tolosaldeko kirolariek

Erredakzioa Tolosa

Pasa den asteburuan Roller-Tour 24 orduak patinajeko erresistentzia proba izan zen Calafateko zirkuituan, eta Tolosaldeko hainbat kirolariek parte hartu zuten, emaitza bikainak lortuz. Irristaka tal-

deak 12 orduko proban bi taldeekin parte hartu zuen. Batek lehen postua lortu zuen talde mixtoen kategorian, eta besteak bigarren postua, gizonen kategorian.

Bestalde, Kepa Caballerok irabazi egin zuen, bere taldekideekin, 24 orduko proban, Txuss Caballeroren taldeak hirugarren egin zuen, eta Markel Caballeroen 13 urtez azpiko neska-mutilen taldeak 539,5 km egin zituen. Irristaka taldearen emaitzak garrantzitsuak dira, kontuan hartuta estreinako aldirik parte hartu dutela horrelako proba batean.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak: BERTAKO HEDABIDEAK

Galtzaundi euskara taldea

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

■ **Berastegi.** Sanlontzotako jaien barruan herri afaria egingo dute Berastegin, abuztuaren 8an, osteguna. Txekorra buruntzian prestatuko dute. Txartelak salgai daude, 12 urtetik beharagoentzat 12 euroan eta helduentzat 18 euroan. Urepele eta Basurde elkartean, Zelai taberna edota udaletxean eskuratu ahaliko dira. Azken eguna, hilaren 31a izango da.

■ **Ibarra.** Langostino Motor elkarrekin, hilaren 28rako, igandarako, irteera antolatuta du. Kasu honetan, Ibaratik atera eta Donztebe, Donibane Garazi, Luzaide eta Zubiritik barrena egingo dute itzulia. Bidaia luzea denez, puntual aterako dira, eta Zubirin bazkalduko dute 25 euroko menua. Gaur da izena emateko azken eguna, eta dirua 2095 5043 971064234593 kutxako kontu zenbakian sartu beharko dute irteerara animatzen direnek.

■ **Ikaztegieta.** San Lorentzo jaietako otorduak txartelak salgai daude Ostatu eta Toki-Alai tabernetan. Erosteko azken eguna hilaren 29a, astelehena, izango da.

JAIK

■ **Villabona.** Herriko jaietako emango diote, 09:00etan, diana, *Izorra hadi* dultzainero taldearen eskutik. 10:30ean, XXXIII. Herri krosa haurrentzat, Altzin plazatik eta Zubeltz elkartearen eskutik izango da: benjaminak, alebinak, infantiak, kadeteak eta jubenilak. 11:00etan, XXXIII. Herri krosa izango da heldu eta beteranoentzat, Altzin plazatik. Izena egunean bertan emateko auke-

ra izango da, eta sariak kategoria bakoitzeko lehen gizonezko eta emakumezkoarentzat izango dira. 12:15ean, Ikurrinaren igoera izango da Erreboteko plazan. 12:30ean, Loatzo Musika Eskolako Bandaren emanaldia Erreboteko plazan, 17:00etan, Kirolgunea, 11-17 urte bitarteko gaztetxoentzat, Bearzana frontoian. Ping-pong, Baseball eta Zapatila jaurtiketa izango dira. 18:00etan, Soka dantza Malkar plazan, Oinkari dantza taldearen eskutik.

19:00etan, Sokamuturra, Erreboteko plazan, Izorra hadi dultzainero taldeak alaituta.

20:00etan, Bertso pilota, Bearzana pilotalekuan. Bertsolariak: Jexux Mari Irazu eta Beñat Igauran izango dira; pilotariak: Iñaki Lizaso-Antton Aranburu eta Iker Urmeneta-Julen Urruzola. Aurkezle lanetan, berriz, Ekain Ormazabal ariko da. 22:00etan, Oinkari Dantza Taldea eta Poxpolo ta Konpainiaren eskutik dantza emanaldi berezia izango da Olaederra kiroldegian. 00:00etatik aurrera, dantzaldia izango da Erreboteko plazan Trikiotz taldearen eskutik.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. Telefonoa: 943 65 46 10.

■ **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren 95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

San Lorentzoren malkoak ikustera joateko deia egin dute Ikaztegieta gazteek

Abuztuaren 6an, kiroldegiko zelaian elkartuko dira; istorioak biltzeko gutunontziak jarri dituzte herrian

E. Maiz ikaztegieta

Ikaztegieta gazteek abuztuaren 6an, asteartean, San Lorentzoren malkoak edo izar uxoak ikustera joateko deia egin dute. Jaien aurretik herritarrak giro lasai batean elkartu nahi dituzte.

Urtero moduan, eta eguraldiak laguntzen badu, aurten ere, abuztuaren zerura begiratu eta izar uxoak ikusteko aukera izango da. Hori dela eta, kiroldegiko zelaira gerturatzea nahi duten adin guztiak herritarrak. Afal aurretik jarri dute hitzordua, eta bertan afaldu ostean, abestuz egingo diote ongietorria. Bertan lotan gertatzen aukera ere izango du nahi duenak.

Istorioak bildu nahian

Lehenik eta behin, herriko gazteek, San Lorentzoren malkoak zer diren azalduko dute. Honen inguruko mito eta kondairak kontatuko dizkiete gerturatzen direnei, baina gauari jarraipena emateko herriko istorio zahar nahiz berriak partekatu nahi dituzte.

Herriko istorio zahar eta berriak biltzeko, herriko udaletxean eta Ostatu, Toki-Alai eta Zubiaurre tabernetan, gutunontzi bana jarri dute.



Udaletxeko poste batean jarri dute gutunontziak bat. E. MAIZ

Hilaren 6a bitartean, herriko istorioak bertan uzteko aukera izango da, gero egunean bertan irakurri ahal izateko. Antolatzaileek jakinarazi dute, abuztuaren 6an eguraldia al-

deko ez bada, hurrengo egunean izango litzateke. Bi egun hauetan ezin bada, herriko festen ostean, abuztuaren 12an, astelehenean egingo lukete. **o alegialdea@hitza.info**

Mauka berria **GAURKO ESKAINTZA**

Udaran, zure OINAK prezio ezin hobean jantzi

OSKARBI OINETAKOAK
EIBAR - ARRASATE - BEASAIN - DONOSTIA
ORDIZIA - ZUMARRAGA - OLABERRIA - OIARTZUN
GIPIUZKOA - Tel.: 943-88 45 38
www.oskarbi.com

Prezioa **17,95€** Mustang
Prezioa **16,95€** Hit de trend long

www.mauka.eu **berria** taldea

Agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK
943-65 56 95 **tolosaldean@hitza.info**

agurrak